



ERRENTERIA

(DE RE OECONOMICA)

LEKUONA'tar Manuel'ek

Ekonomia, gauza guztietan sartzen da. Ezin esan ditek, Ekonomia «ezer ez» danik; bañan ezta «dana» danik ere.

Ekonomiaz gañera ba da munduan beste baliorik ere. Artzko eta sentimenezko baloreak, adibidez. Errenteria, orren credu. Errenteria, oso ekonomi-erria da. Ala ere, Errenteria'k piztu digu, azken-urte auetan, Xenpelar baten irudirik ederrena, espiritu-kulturazko irudi goregorea; Erria, lilluraturik, bere ondoren erakarri duan Xenpelar bertsolariaren irudi arrigarria—Zerbait olako esan bait liteke, baita, igazko OARTSO'n guk aipatu genduan Juan Krutz Zapirain'entzat ere—... Errien bizian ba da, bai, Ekonomiaz gañera, beste zerbait ere.

Bañan aurtan guk, OARTSO'ren orrietan, Ekonomi-puntu bat ikutu nai degu: Errenteria'ren denbora bateko Ekonomi-puntu bat; Errenteria'ri eta Oyartzun'i berdin edo berdintsu dagokien puntua. Bi Erriok, antzia-antziña, zenbait gauzetan Ekonomia bera izan bait zuten: mendi

gauzetan, adibidez, eta berdin baita, portu-gauzetan ere—zerbaitegatik, gaurko Pasai-Portuari, antziña, «Oyartzun-Portu» esaten bait zitzaion...

Errenteria'ren izenetik asiko gera. Izen au, Ekonomi-izen jatorra bait da.

Errenteriak, Euskalerrian, gure ontaz gañera, bi geiago gutxienez ba ditugu; biok Bizkai'an: Gernika'n bata, eta Ondarru-Berriatua'n bestea. Biok, gure au bezela, itxas-inguruan, ibaian-gora joanda; karga-deskargarako kai eta mollak dituztela.

Gure Errenteriak ba zuan, gañera, Ekonomi-kontuko beste zerbait ere: Lonja bat; komertzio-salerosketarekin zer-ikusi aundia zuan zerbait.

Olako lonja, Errenteriaz gañera, bai bait zan beste bat, Ondarribia'n. Eta beste bat, benetan izen aundikoa, Bedua'n, Oikina'ko lurtean, Zumaya'tik ez urruti. Urolabaztarretako olaetan egiten zan burnia, Bedua'ko Lonjan

biltzen bait zan, eta an kontratatzen, «al peso de Bedua», esan oi zan bezela.

Zertzelada oien argitan, ikustagun orain zer-nolakoan zan gure Errenteriaren izaera, Ekonomi-alde ortatik.

Errenteria izenak, gure artean, «Errenta-erria» esan nai duala uste izaten da askotan, euskal-izen garbi-garbia bait litzan (Ikus Juan Ignacio Gamon'en «Noticias históricas de Rentería»).

Edozeñek daki, ordea, izen orren bukaerako *-eria* ori, *erria* ez dana, erderazko atzizki bat baizik.

Bañan, ala ere, egia da «Errenteria'k» errentak kobratzarekin zer-ikusit zerbait ba duala. Errenteria'n leen errentak kobratzen ziran.

—Zer errenta?, zeñen errenta?, zeñentzako errenta?

Historiazale gipuzkoar Gorosabel'en ustez, Erregerentak, *las Rentas Reales*, kobratzen ziran Errenteria'n.

—Zeñentzako ziran Errenta oiek?

Gorosabel'en ustez, Errengerentzat, Gamon'en ustez, ordea, beste zenbaitentzat ere izan bait zitezkean, Probintziarentzat, adibidez, edo-ta Erriarentzat:

—Zeñek ematen zituan?, zeñek pagatzen? edo-ta obeto, zeñi kobratzen zitzaizkion?...

Besteak beste, guk emen errenta oien iturri bat aipatuko degu—iturri naiko oparoa—: Bizkai'tik, inguru auetako olaetarako ekartzen zan burni-meatzaren «laka», kintaleko onenbestekoa.

Guk gai ontan dakiguna itzez ikasia—auxe da: Oyartzun'go eta Errenteria bertako eta Goizuetako ola-jaunak, beren olaetarako bear zuten burni-meatza, Errenteria'tik eramaten zutela: eta, ala berean, bueltakoan ekartzen zuten burnia ere, Errenteria'ra ekartzen zutela.

Mandazaiak izan oi ziran, ortarako «transportistak»...

Gure aitona—nere aitabitxi «Mañuel motxa» oyartzuarra—mandazai oietako bat zan. Bere iru mandoekin,

Goizueta'ko Alduntzin-olako serbitzua egiten zuan: Errenteria'tik burni-meatza Goizuetara, eta Goizueta'tik burnia Errenteria'ra—zala plantxuela, zala, itxas-ontzietarako petritxeria, entenga, txabeta, kabilla—. Egunero-egunero, «Arre, mandua!».

Artu-eman oietarako ba zan Errenteria'n Almazan egoki—Lonja-edo—Bizkai'tik zetorren Somorrostro'ko meatza garbi bikaña, an pillatuta eukitzeko, gero Olajaun bakoitzak bear zuana andik eraman zezan. Almazanajea, ordea, ez bait zuten dirutan ordaintzen, «lakaren» bidez baizik. Eta lakatan biltzen zana—kintaleko onenbestekoa, alegia—urtearen buruan saldu, eta artutako dirua, Errenteria'ri puska bat eta Oyartzun'ek beste puska eramaten zuten. Urteberri-egunez garbitzen zituzten urteko kontuak..

Eskubide ori, aspaldidanik—«betidanik», olakoetan esan oi dan bezela—zuan Oyartzun'ek Errenteria'ko Portuan.

Dirudianez, eskubidea, asieran, Portuko kai eta mollak, Erri bion artean egiñak ziralako sortu zan; eta eskubideak oin ortan jarraitu zuan, orain eun urte arte—bigarren Karlistatearen ondoren burniolak emen oietan galdu ziran arte. Bañan, gero ta gero ere Oyartzun'ek urteoro-urteoro bidaltzen zuan, Urteberri, Errenteria'ra bere Sindiko Boltseroa, artzekoa kobratzera... boltsa utsean txanpon zaar bat beste gabe Errira itzuliko bazan ere... usadio zaarra gal etzedin...

Orra, beraz, antziñako Errenteria'ren, eta Oyartzun'en ere Ekonomi-iturri bat: Portuaren «Errenta». Etzan izango iturri bakarra, bañan bai naiko oparoa, Goizueta'ko eta Errenteria'n bertakoez gañera, Oyartzun'ek berak bakarrik bai bait zituan amar-amabi bat olaa, gau ta egun burnigintzan aritzen ziranak, bakoitza eun bat langillerekin... Ziranak zirala, Ekonomi-iturri sendoa. Gaur zearo galdua. Galdua eta aaztua... guk aurtan OAR-TSO'ren orrietan oroitarazi nai izan deguna, gure antziñako Ekonomiaren ageri.